

7. Pasabidea: Hiriaren VI Mendeurrena 5 eta 9

Kale honetan sinkronizatuta daude San Pelaio zeharbidera sarrera (Merkatua) eta Errebalburu eta Ongaraira sarrera (eskailera mekanikoen espaloia) antolatzen dauden semaforo biak.

Pasabide honetan, San Pelaio zeharbidera sarreran oinezkoek espaloia bien artean gurutzatu beharreko distantzia 10 m-koa da, beraz, oinezkoak pasatzeko gutxieneko funtzionamendu-denbora 15 segundo dira.

Pasabide honetan, Errebalburu eta Ongaraira sarreran oinezkoek espaloia bien artean gurutzatu beharreko distantzia 9 m-koa da, beraz, oinezkoak pasatzeko gutxieneko funtzionamendu-denbora 18 segundo dira.

Semaforo horietan oinezkoak pasatzeko argi berdez egun dagoen denbora 28 eta 23 segundo dira, hurrenez hurren, eta argi gorritz zain egotekoa 84 eta 81 segundo.

Ibilgailuen kasuan argi berdez pasatzeko duten denbora 73 eta 78 segundo dira, hurrenez hurren, eta argi gorritz zain egotekoa 35 eta 29 segundo.

Bi pasabideetan ibili beharreko distantzia aintzat hartzen badugu, oinezkoek denbora larregi dute pasatzeko, baina kasu honetan kontutan izan da, pasatzeko lehen gunean (Merkaturako sarreran) pertsona multzo handia pilatzen dela egunean zehar.

Pasabide honetan instalatuta dagoen ekipoa zaharra da eta ezin dira ordutegi ezberdinak ipini lanegunetarako eta asteburuetarako.



